# SUKALDEKO ZERRENDAK 2020
# ESKAERAK ZUZENTZEA

## INFORMAZIO OROKORRA

<u>Nork zuzendu dezake eskaera?</u>

Eskabideak "hutsak zuzentzea" egoeran dituzten hautagaiek bakarrik zuzendu ahal izango dituzte.

Hau da, dokumentazio jakin bat dutela alegatu baina behar bezala egiaztatu ez duten pertsonek soilik zuzendu ahal izango dute.

Hauek dira hutsak zuzentzeko arrazoiak:

[1] Ez du NAN/AIZren kopiarik aurkeztu edo alde batetik baino ez dago.
[2] Ez du eskola-ziurtagiririk edo horren baliokiderik aurkezten, edo osatu gabe dago.
[3] Ez du lan-esperientziarik edo prestakuntza-ikastarorik egiaztatu, ezta sukaldeko titulurik ere, edo aurkeztutakoa osatu gabe dago.

Baztertutako pertsonen behin-behineko zerrendan zure izen-abizenen ondoan adierazitako zenbakiaren bidez kontsulta dezakezu baztertzearen arrazoia.

Adibidez: NANa alde batetik bakarrik aurkeztu baduzu, "1" agertuko zaizu behin-behineko zerrendan, eta zuzentzeko aukera izango duzu NANaren kopia osoa aurkeztuta.

<u>Nola zuzendu:</u>

Interneteko konexioa duen **ordenagailu** batetik sartu behar duzu, gida honetako jarraibideen arabera. Ezin da mugikorraren, tabletaren edo antzekoaren bidez egin. Ordenagailua erabili beharko da.

Nabigatzaile hauek erabiltzea gomendatzen da: Google Chrome, Mozilla Firefox eta Microsoft Edge. Ez erabili Internet Explorer.

<u>Eskaeraren zuzenketaren inguruan garrantzitsua:</u>

Zure eskaera zuzendu nahi baduzu, ez duzu zertan erreklamaziorik aurkeztu.

# ZURE ESKAERA ZUZENTZEKO SARBIDEA

Eskabidea Irakasleguneko "**Nire Eskaerak**" eremuan dago (https://irakaslegunea.euskadi.eus/eu/group/irakaslegunea/mi-cuenta-docentes).

Eskabidean sartzeko, izenburuan klik egin behar da:




Hor ikusiko duzu bidalitako eskaera.

Eskaeraren amaierara joanez gero, "Eskaera aldatu" klikatu ahal izango duzu.




"Eskaera aldatu" botoitik zuzendu ahal izango duzu aldez aurretik bidalitako eskaera.

Garrantzitsua. Ezin izango da zuzenketarik egin harik eta erreklamazioak aurkezteko epea hasi arte: abenduaren 14tik 28ra (abenduaren 28a barne).

## EGIAZTAGIRIA LORTZEA

Zuzenketa bidali ondoren, egindako bidalketaren egiaztagiria agertuko da.




Eskabidea egoera horretan egongo da (hutsak zuzentzea) zuzentzeko epea abenduaren 28an amaitu arte (egun hori barne).